


Zumaiako herri aldizkaria

2000ko abendua

BALEIKE

200 pta.

74. zenb.



● aek-ri eraso berria

● San Pedro Txiki abesbatza Parisera

● Goiko berriaren eztabaida

● Parroko berria herrian



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51

- Sukalderako hornikuntza diseinuak.
- Lanen zuzendaritza.
- Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.
- Kalitate-prezioan parekorik ez.



Juan Belmonte 29, behea.

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

e-mail: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue

Esther Etxeberria

Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Jon

Manzisor, Jon Maia,

J.J. Aizpurua, Inaxio

Manterola, Fototeka,

Andoni Ormazuri, etab.

Komikia

Igor Lersundi

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue, Imanol

Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri,

J.J. Aizpurua

Publizitatea

Esther Etxeberria

(943 861545)

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Nola aldatzen diren gauzak, mof

Bazen behin, orain ez urte asko, mutil zahar gelditzeko beldur zen zumaiar bat. Mofli koala zuen ezizena, animalia exotikoen artean pioneroa agian, mundua jan behar zuena (baita Eulariren pastelak ere), askatasunaren balore ukiezinaren pean hamaika eta bi egin zituena, eta nola ez, parrandero latza zena. Zallako pintxo bat hartzeko ere ia-ia baimena eskatu behar zitzaion jendilajea.

Jenerazio bat markatu zuena, eta orain txipiroien jenerazio berri bati paso eman behar diona. Gure Koala txikia baloi batekin jaioko da agian, eta gozozale amorratua izango da, hori seguru. "Moflitxo, izan zeu", 50 nebaditoko kaxa bat eskutan duela. Hiru urtetan lana eta andrea aurkitu eta umea egin duk. Errazena duk hori, mof! Mareak harrapatu egin hau, eta orain Taosa boysekin hago, denak txalupa berean. Laster kotxe karrerak egiten ikusiko haugu Erribera kalean... Paulo and company, eta zuek zer? Abestiak dioen bezala, nola aldatzen diren gauzak, nola aldatzen diren gauzak, kamarada mof!!!



Taosa Boys

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



Pazientzia

Uste dut Udalak argitaratzen duen "Zumaiako Paola" izeneko aldizkarian irakurri nituela alkatearen hitzak herri-tarron "pazientzia" goraiapatuz. Herrian egiten ari diren lanei buruz ari zen, eta nola herritarrek kekurik gabe agoantatzen ari ginen herria hankaz gora zegoen bitartean.

Kexurik ez omen da egon herri guztia behin eta berriro altxa dutenean, toki batean zuloa egin, zuloa estali, handik gutxira berriz egin eta etengabe zulo berbera zabaldu eta estaltzen aritu diren bitartean. Kexurik ez omen da egon herriko trafikoa kaos bihurtu denean, eta ezta aparkatzeko arazoak jasan ditugunean ere. Horregatik omen dugu zumaiarrok goraiapatzeko "pazientzia". Egia da pazientzia izan dugula eta izaten jarraitzen dugula, ulertzekoa baita herriaren onerako izango diren lan batzuek denbora eta trabak eskatzen dituztela, eta horretaz jabetzen gara.

Baina pazientzia berdina eskatuko nioke Udalari eta bereziki Udaltzaingoari isunak jartzeko garaian. Ia urtebete goaz trafiko arazo izugarriekin, herrian aparkatzeko tokirik gabe eta Udalak egoera honi ezarri dion irtenbide bakarra isunak jartzeara izan da. Harro esaten dute

gainera udako hilabeteetan mila isun inguru jarri dituztela. Mila isun hiru hilabeteetan hiru mila auto dauden herri batean! Nola da hori posible? Ez dut uste zumaiarrok berez hain gidari txarrak garenik. Zalantzarik gabe jendeak gaizki aparkatzen du, baina gaur egun ez dago beste erremediorik Zumaian. Berez aparkatzeko toki gutxi dago eta obra hauekin guztiekin are gutxiago. Baina Udalak hori konponitzeko isunak jartzeari ekin dio. Eta udaltzainek gustura jarri gainera. Askok diote beraien errua ez dela, beraiek bere lana bete besterik ez dutela egiten. Ez da egia. Udaltzainak eta udaltzainak daude. Batzuek auto batek traba egiten duela ikusten badute, jabeari deitzen diote tokiz mugitu dezan, beste batzuek, berriz, berehala isuna jartzen diote, autoak sortzen duen arazoa konpondu gabe. Ez da ahaztu behar gainera, Udaltzainek jarritako isun bakoitzeko komisioa dutela.

Arazo bat dago herrian aparkalekuekin eta trafikoarekin, eta arazo horri irtenbide bat aurkitzea da Udalaren eta Udaltzaingoaren zeregina. Konponbide hori ez da iritsiko isunak jarriz.

Pazientzia eskatzen digu alkateak herritarroi obrekin. Noiz ikusiko dugu pazientzia berdina zuen aldetik?

KARLOS I.

Argi misterlotsuak

Kaixo lagunok.

Ea mesedetxo bat egiten diguzuen.


Egun batzuk badaramatzagu Pulpoko plazoletan eztabaidan, ea ilunabarrean zeruan ikusten diren "objektu" argitsuak (bi ipar-mendebalera Askizua gainean eta bat hego-mendebalera Foronda gainean) izarrak ala gizakiak egindako sateliteak ote diren.

Sateliteak direla baieztatzen dutenek diote izarrek ez dutela hainbeste argitzen, eta gainera, izarrak izango balira askoz gehiago ikusi beharko liritekeela zeruan.

Sateliteak ez, baizik eta izarrak direla uste dutenek, berriz, argudiatzen dute sateliteak izango balira espazioan azkarrago mugituko liritekeela orbita ez galtzarren, eta ez dirudiela objektu horiek asko mugitzen direnik.

Ea inork argibide egokiak ematen dizkigun. Eskerrik asko, alde zurretik.

PULPO ALDEKO LAGUN TALDE BAT.



Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

AIZMAN-KOS S.L.
SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK
Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA



ALBAITARITZA KLINIKA
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-
Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508
Larrialdiak - 24 ordu - zeure etxean

dekorazioa
ALBERDI
• Eskaiola
• Pladur-a
696 726188
943 143261

Alberdi
Gizonezkoen moda
Erribera kalea, 6
Tel. 861155



ANA
ETXeko ZAPIAK
Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Aek-ri eraso berri bat

19 lagun inputatu ditu Gartzonek.

Txosna, rifa eta gisakoekin ateratako diruak eta Gizarte Segurantzari eman beharrekoak ETArri ematea leporatzen die. Zumaiako aek-koekin egon gara eta haserre daude. Gartzonen autoari ez zaio ikusten aurrera egiteko fundamenteu haundirik, baina eurek dioten bezala "mina eginda dago jada". Hainbat ekimen antolatu dituzte jendearen elkartasuna biltzeko.

Denok susmatzen genuen nola zebilen aek diruarekin. Dirurik gabe alegia. "Gure gastuak ordaintzeko ere ez badaukagu noren buruan sartzen da Gartzonek dioen bezala ETA, Jarrai eta beste hainbat erakunde finantziatzen ditugula" dio haserre Arrik. "Ikasleen matrikulekin, ikasturte potentea baldin bada, gure soldatak kubritzeko adina ateratzen da justu-justu. Baina gero zentruaren alkilerria dago, argindarra, eta materiala, eta guzti hoiek kubritzeko geuk atera behar izaten dugu dirua txosnekin, rifekin e.a." esplikatzen du Ihintz-ek. Jaurlaritzaren dirulaguntzak hasi zirenetik dezente arindu omen da gisa honetako lana, baina aek-n denetarik egin behar izan dute aurrera ateratzeko. "Zumaian kalean guztiek ikusi gaituzte kalean gaztainak saltzen, taloak egiten..." dio Arrik.

Hain zuzen ere Gartzonek holako ekimenetatik ateratzen den dirua ETA-ri pasatzen zaiola dio bere autoan 'Udaletxe' delako ETA-ren dokumentu batean oinarriturik. "Ez dakigu Gartzonek ze dokumentu dauzkan baina entzun genuenean parregurea eman zigun" komentatzen dute.



24 urte dauzka aek-k eta urte guzti hauetan borondatezko lanean oinarritu da bere iharduera. "Gizarte Segurantzari ordaintzeko obligazioa kontratuak egiten direnetik sortzen da. Aek-n beti jakin izan dugu dirulaguntzarik ezean kontraturik egiteko ez zegoela eta oso diru gutxi jasoaz egin behar zela lana. Kontraturik ez da egon, langileek borondatez egindako aukera izan da gainera, militantziaz, nahi dugulako egiten dugun aukera, eta ondorioz ez dago inolako iruzur deliturik" esplikatzen du Itziarrek. Borondatezko lanaren kontu hau argi utzi nahi dute, zenbaiti ulertzeko zaila suertatzen bait zaio, baita beraien gertuko jendeari ere. "Irabazten dugun dirua oso ondo etortzen da, merezi dugu gainera, baina gure lana gustatu egiten zaigulako eta lan on bat dela uste dugulako egiten dugu eta ez diruagatik" komentatzen dute.

95-etik aurrera hasi ziren kontratuak egiten. Habe-rekin hitzarmen bat egin zen bost urtetarako, jasotzen ziren dirulaguntzekin pixkanaka langile guztiei kontratuak egin eta erakundearen egoera legalizatzeko. "600 irakasle dauzka aek-k eta denbora bat behar izan da guztiei paperak egiteko, baina dena kunplitu dugu. Aurten bukatzen zen langileen %100-ari kontratua egiteko epea eta iaz bete genuen, kontratuak egin direnetik Gizarte Segurantzari ordaindu zaio, eta Jaurlaritzak beti kontrolatu izan du emandako dirua zertan erabili den" kontatzen du Arrik. Gainera 98-an Gartzonek oraingoaren gisako beste auto bat atera zituen, hiru lagun atxilotuaz, eta ordutik hainbat auditoria egin behar izan dituzte urtero bai Jaurlaritzarentzat eta baita Gartzon berarentzat ere. Eta denak gainditu dituzte.

Itxuraz deliturik ez badago zergaitik kaleratu du orduan Gartzonek auto hau?. "Momentu politikoagatik" Itziar da erantzuten lehena, "hauteskundeak datoz eta Jaurlaritza desprestigiatu nahi dute boterea eurak lortzeko". Izan ere Nafar Gobernuarengandik ere dirua jaso arren Jaurlaritzaren dirulaguntzak bakarrik aipatzen dira autoan "Aek-ri kalte egiteko asmoa ere hor dago. Ikusi dute gauzak ondo ari garela egiten, ofizialtasunari dagokionean eta gizartearen aurrean kontsolidatzen ari garela, eta ez zaie gustatzen" dio Ihintz-ek. Hain zuzen irakasle guztia legalizatu ondoren haberekin zentruak homologatzeko, osasun eta segurtasun neurriak beteazteko, bost urterako hitzarmena sinatu berria zenean kaleratu zuen autoa Gartzonek. Biharamunean UA-k

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Itzurun, 1 Tel. 143224



Kale nagusia, 2 Tel. 861521



dirulaguntzak kentzeko eskatu zuen legebiltzarrean.

Gartzonen auto kolekzioa ikusita, gehienak bide erdian gelditzen dira kalatuta, eta dauzkaten datuekin ez zaie iruditzen istoriak aurrera egin dezakeenik. Mina eginda dagoela diote ordea. "Gartzon ezer frogatzera iritsi gabe ere aek-ren irudia zikinduta gelditzen da. Jende askok pentsatzen du, erderazko esamoldeak dioen bezala 'cuando rio suena agua lleva'. Eta noski gero ezer ateratzen ez bada ere Gartzonek, egin-ekin egin zuen bezala, ez du esango gauzak garbi daudenik, eta inork ez dio ordainaraziko egin duena" dio Arrik. "Gero arlo ekonomikoarena dago. Kontu guztiak blokeatu ditu eta administratzaile judizial bat izendatu du, oraindik azaldu ez dena, eta egoera hilabetetan luzatu daitekeenez ba dena airean gelditzen da" gehitzen du Ihintzek.

Hain zuzen ere ikasleei klaseekin jarraituko zutela azaltzea izan zen autoa ezagutu zutenean egin behar izan zuten lehen gauza. "98an ere hiru hilabete pasa behar izan genituen kobratu gabe lan eginaz Gartzonen eskuhartzea zela eta. Ohituta gaude" dio Itziarrek.

Azaroaren 28an batzar bat egin zuten herritarrek informatzeko eta bertatik laguntzaile batzuk atera ziren egin behar dituzten ekimen desberdinen antolakuntzarako. Abenduaren 5-ean kontzentrazio bat egin zuten euskaltegi aurrean eta 70 bat lagun urbildu ziren. Eta sinadurak biltzen ere egon dira Erribera kalean mahaia jarrita. Dagoeneko 400 bildu dituzte eta segitzeko asmoa daukate.

Gustora daude herritarrek orain arte eman duten erantzunarekin. "Ari da

jendea mugitzen" komentatzen dute.

Urrango ekitaldia Bilbon datorren larunbatean, abenduak 18, egingo den manifestazioa da. Bost t'erdietan aterako da, aek eta euskararen alde eta Zumaiatik 4-etan irteteko jarrita egongo dira autobusak. Bertan joan nahi duenak Algorri, Inpernupe, Nikol eta euskaltegian bertan eman dezake izena.


◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Kronologia:

- 2000-11-01.** Aek-ri diru laguntzak kentzeko proposamena UA-k Legebiltzarrean. "Agerikoa da aek ETA finantziatzeko erabiltzen dutela":
- 2000-11-18.** PP-k aek-ren Aizu aldizkariaren aurka.
- 2000-11-22.** Gartzonek bere autoa kaleratzen du.
- 2000-11-23.** UA-k berriro ere dirulaguntzak kentzeko proposamena egiten du Legebiltzarrean. Aek-k prentsaurrekoan gezurtatu egiten du autoak dioen guztia eta aurkako lehen erreakzioak ere azaltzen dira ELA, LAB, IU, EH, PNV, EA eta EHEren aldetik.
- 2000-11-24.** Bai Euskal Herriari prentsaurrekoa "operazioan berriz oinarritzko eskubideak urratu dira". EHNEren agiria "euskalgintza kriminalizatze asmoa gaitzesten dugu". PP-ko Mariano Raxoi "laguntzekin Jaurilaritzak ez ditu betetzen joko arauak". EHren prentsaurrekoa "argia da abertzale koerente orok buka dezakeela espetxean". EB-ren agiria "autoa neurrik kanpokoa eta arrazoitu gabea da".
- 2000-11-25.** Ikastolen Elkartearen elkartasun adierazpena "eraikitako guztia ezabatu nahi dute"
- 2000-11-27.** EAjen prentsaurrekoa "kontzeptuak eta prozedurak nahastu dira eta Jaurilaritzari min ematera joan dira". PP-k azalpenak eskatzen ditu legebiltzarrean.
- 2000-11-28.** Aek-k hitzarmena egoki bete duela dio Jaurilaritzak. Ogasun Sailak eta Herri Kontuen Epaitegiak eginiko auditoria guztiak gairiditu dituztela. Kontseiluak euskalgintzaren defentsan inplikatzeko eskatzen dio gizarteari.
- 2000-11-30.** Lehenengo lau inputatuek deklaritzen die. Jaurilaritzarekiko harremanean zentratzen dira galdeketa guztiak. Gartzonek ez ditu kartzeleratzen. Bestalde aek-k korrika 12-aren aurkezpena egiten du 'mundu bat eskarara bildu' lelopean.
- 2000-12-04.** Beste hiru inputatuek deklaritzen dute eta aurrekoen berdina gertatzen da. Aek-k Iruñeako Gaztelu Plazan ematen ditu klaseak autoagatik protestatzeko



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 861018



AUTOS ZUMAI A

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

inkesta

- 1- Zer iruditzen zaizkizu Gartzonek aek-ri egotzitakoak?
- 2- Zergaitik egin du Gartzonek hau zure ustez?
- 3- Zer jarrera hartu behar du gizarteak guzti honen aurrean?



Julian Sanchez. Munizipala.
Aek-ko ikasle ohia.

1- Gartzon jauna, kulturak ez dauka zerikusirik politikarekin. Nik euskera ikasten jardun nuen aek-n

eta ez zegoen besterik. Utz diezagutela pakean bertako kultura ikasten.

2- Enkarguz.

3- Ez ixildu. Aurka egiteko antolatu. Geure kulturari eta Euskal Herriari egindako eraso honen aurrean defendatu.



Miriam Romatet.
Kultur teknikaria.
Aek-ko irakasle ohia.

1- Parregarriak irudituko zitzaizkidan hain arrisku-
tsuak ez balira. Ez

bakarrrik epaiketari gerta ditekeneagatik, ez bait zait iruditzen aurrera egingo duenik, daukan ohiartunagatik baizik. Hemen gehienok badakigu esaten dituenak ez dutela fundamenturik, baina espainia mailan aek beti nahikoa ilun ikusi izan da eta orain gehiago. Gertuago ere badaude ikusi nahi ez dutenitsuak, Gartzonen 'ebidentziekin' asko poztuko direnak. Euskeraren irakaskuntza ETArekin lotu nahi dute eta hori grabea da.

2- Bere estrategia dauka. Emaizta zuzenik izango ez duen arren eta hainbati gaizki iruditu arren pausua eman egin du berak eta ez zuen ondorioak kalkulatu gabe emango.

3- Salatu egin behar da. Aek-ri ahal den neurrian lagundu. Egiten diren mobilizazio guztiak ondo iruditzen zaizkit.



Jose Etxeberria. Apaiza.

1- Honek ez dauka izenik. Frankoren garaia gogoratzen dit, baina haiek baina zinismo gehiagorekin dabilta

hauek. Lehen itsu-itsuan joaten ziren eta orain berriz kalkulatuagoa da eraso. Harrituta nago eta izututa. Hemengo izakera eta kultura ezabatzea da euren helburua, eta abalantxak jarraitu egingo du, seguru nago.

2- Abertzaleen mugimenduak ezabatu nahi dituzte. Lehen ETA-ren kontra ari ziren itxuraz, baina orain garbi gelditu da abertzale guztien kontra ari direla. Pausu bat gehiago da hau eta ondo erantzuten ez bazaie gehiago emango dituzte.

3- Izan izan behar duguna, herri bat. Protagonismoa politikariei utzi gabe gertuagoko zirkuluetan egin behar da lan, batu. Mugimendu onak beti behetik hasten dira.



Gotzon Enbil. Puntista.

1- Nire ustez Gartzonek esaten duena ez da egia. Jaurlaritza ez da tontoa eta aek-k dirulaguntzak ETA-ri pasatzen zizkiola

ikusiko balu aspaldi moztuko zituen.

2- Argi dago Mayor Oreja dagoela atzetik. Hauteskundeak aurreratu nahi dituzte beraiek agintzeko. Dagoen arazoa konpontzeko berriz ez dute ezer egiten.

3- Ez dakit. Larriena da hemendik kanpora gezur horiek denak sinestu egiten dituztela. Euskaldunok badakigu aek zertan dabilen, baina espainolek edozer gauza tragatzen dute.



Mertxe Argintxona.
Musika patronatua.
Aek-ko ikasle ohia.

1- Pasada haundi bat iruditzen zait egiten ari direna. Aek-k bere

funtzioa betetzen du, helduak euskalduntzea, eta ez dago inolako eskubiderik jende honen aurka horrela joateko.

2- Aspaldian dabil estatua euskaldunon kontra, nundik harrapatu ez dakiela. Euskerarekin hasi dira orain... jendea beldurtu nahi dute, desanimatu.

3- Aek-k bere lanarekin jarraitu behar du eta besteok a tope apoiatu. Ideia polita izan liteke ikasle eta ikasle ohi guztien sinadurak bildu eta Gartzoni eta Gobernu espainiarrari idatzi bat bidaltzea. Mota guztietako jendea dabil aek-n ikasten eta politikariei argi utzi behar zaie ez gaudela prest gure hizkuntza alde batera uzteko.



Uxua Gaintza.
Polikiroldegiko langilea.
Aek-ko ikasle ohia.

1- Jaurlaritzak dirulaguntzak eman dituenean iruditzen zait kontrolatuta

izango zuela zertan gastatzen zen. Pixkat gehiegizkoa iruditzen zait Gartzonek planteatzen duen saltsa hori.

2- Ez dakit. Printzipioz bere arrazoiak izan behar lituzke egin duena egin ahal izateko. Litekeena da ordea errugabe bat akusatzea ere. Ez det ezagutzen zer prueba eta zer istori dauden eta ez dakit ba zer esan.

3- Niri aek-k ez dit mesfidantzarik sortzen. Helduak euskalduntzen dituen erakunde bat bezala ikusi izan ditut beti eta halaxe jarraituko dut.



Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxe: 861067

Kirol portuaren kontrolerako Jaurlaritzaren pausoak

Joan den ekainean izan genuen kirol portuaren kontrola hartzeko Jaurlaritzaren asmoaren berri. Lanen likidazioa egiterakoan aurreikusitakoa baino 212 milioi gehiago gastatu zirela ikusi zen, zatirik handiena hasieran aurreikusi ez ziren lanengatik eta gainerakoa 98an BEZ-aren legean gertatutako aldeketak zirela medio, eta zorra ordaintzeko ohiko bidea (dirulaguntzena) jarraitu beharrean kudeatzailearen (Zumaiako Kirol Portua elkartearen) kapital gehikuntza proposatu zuen. Lanen finantzazioa hasieratik Jaurlaritzaren kargura egon bada ere (bi mila milioi jarri dituzte honetarako), kudeaketaren kontrola Jaurlaritza eta Udalaren artean partekatu dute orain arte bakoitzak elkartearen akzioen erdiak, bosna milioi jarrita, zituelarik. Kapital gehikuntzak Jaurlaritzak akzioen % 97,8 eskuratzea ekarriko luke eta kirol portuaren kontrola lortzea ere bai.

Ordutik hona kirol portu guztien kudeaketa eramango duen Euskal Herriko Kirol Portuak elkartea sortu du Jaurlaritzak eta duela egun batzuk Zumaiako Kirol Portua elkartearen kapital gehikuntza eta euren aldetiko akzioen erosketa baimendu zituen dekretu baten bidez. Akziodunen Batzar Nagusian enpate tekniko dago, alde bakoitzak %50 baititu eta printzipioz Jaurlaritzak ezingo luke kapital gehikuntza inposatu, baina Udalean ez dute erremedio handirik



ikusten. "Guk ez daukagu gure iritzia ezartzeko modurik. Bide bakarra epaitegietara jotzea litzateke eta hori oso gogorra da bi parteak alderdi politiko berekoak garenean. Eurak, ordea, erraza daukate, elkartea itoko dute Jaurlaritzari ordaindu behar zaion kanona igoaz eta listo. Hasiak dira jada horrelako trabak jartzen" esplikatu zigun Rikardo Peña alkateak.

Haserre azaldu zen Jaurlaritzaren asmoen berri jakin zuenean eta ez zaio pasa oraindik.

"Bere momentuan kontestazio haundi bat egon zen eta euren ondo etorri zitzaizen Udala inplikatzeko. Eurek

euren parte jarri zuten eta guk geurea, guztiok nahi baikenuen kirol portua, eta elkartearen estatutuetan oreka hori islatzen da. Oraingo honekin bizkarra eman diguten sentsazioa daukat" esan zigun. Politika berriaren zergatiak ere ez dizkiete azaldu. "Eta ez dakit egingo ote duten, edonork ulertzen baitu obra batek espazio fisiko bat okupatzen duenean bertakoen iritzia entzun egin behar dela eta portua hobeto kontrolatuko dela bertatik Gasteiztik baino", jarraitu zuen.

Hala ere aldaketa honek ez omen du eraginik izango kirol portuaren erabiltzaileengan. "Marina-Urolak jarraituko du ustiatzaile eta horiek jartzen dituzte erabiltzaileentzako baldintzak. Aldaketa bakarrak enpresa honek ordaindu beharreko kanonean eta kanon horren erabileran leudeke. Zuzenean Jaurlaritzari ordainduko diote herriko elkartetik pasatu gabe eta guk diru hori gero kirol portuan berrinbertitzea pentsatzen bagenuen ere uste dut elkartea berriak fondo komun bat egiteko asmoa duela Euskal Herrirako. Kanon hori, ordea, diru gutxi da eta praktikan ez du garrantzi handirik", esplikatu zigun.

Istorioren guztiaren amaiera egokiena akordio batera iristea litzateke Rikardo Peña iritziz, eta horretan saiaturik dela dio. "Zentzuzkoena nolabaiteko akordioaren batera iristea litzateke. Ea zerbait lortzen dugun" bukatu zuen.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
francés
euskara
inglés
español
catalán
suomi
basco
català
finès
francès
anglès
català
francès
castellano
finès
inglés
basc
català

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051



DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Goikoren neurriek eztabaida piztu dute



Dezentekoa gainera. Aurretik pasatzen diren guztiek euren iritzia ematen dute. Gehienei eraikin berria zaharra baino handixeagoa dela iruditzen zaie. Eta ondoko nahiz atzeko etxeetako bizilagunek behintzat protesta egin dute lehioetan pankartak ipiniaz. "Lehen Goikok baino bolumen gehiago ez. Udaletxea, babes itzazu gure eskubideak" diote.

Iritzi kualifikatu bat ezagutu nahi izan dugu eta Luxiano Pagoegi udal arkitektoarengana jo dugu galdetzeraz.

Sortu den polemika gehiegizkoa iruditzen zaio honi. "Kale nagusian dago, tabernaz inguratua, eta jende asko pasatzen denez asko komentatu da, baina kontuak ez du hainbestera ematen" dio. Barneko egitura dago aldaketa nagusia, komunentzako tokirik ez dutenez, eta goiko solailuan jartzea konplikatu omen denez etxabe bat irekiaz. Gainerantzean, eta zehazki kanpoko neurriei dagokienez,

ez omen dago aldaketarik. "Haizeaz babesteko atzekaldean zuen orma zen lehen punturik garaiena, 8'30 metroko altuerarekin, eta gero teilatuak inklinazio pixkat zuen behera aurrealdean 7'90 metroko altuerarekin bukatu arte. Orain teilatuaren gailur guztia berdindu da inklinazio hori kenduz eta 8'30ean jarriz. Hori da guztia" esplikatu digu.

Handiagoa dirudi, ordea, eraikin berriak, eta neurriak berdinak badira nola litekeen galdetzen diogu. "Itxi eta pintatutakoan ikusiko da berdinak direla. Barruan espazio gehixeago izango du, lehen egitura harrizkoa bazen orain hormigoizkoa izango baita, eta ondorioz horma bakoitza 60 bat zentimetro meheagoa. Agian horregatik itxi aurretik espazio gehiago okupatzearen itxura eman dezake. Gero basea zuzendu egin da pixkat, atzeko ertza patxanganetik zerbait urrundu eta aurrekoa zerbait arrimatu..." dio Luxianok.

Pankartak jartzeaz gain, kexa batzuk ere tarteratu dituzte udalean auzokoek, eta abokatu bat hartu dute.

Erraturik daude Luxianoren iritziz. "Haseratik oso jarrera gogorra izan dute. Goikok proiektua egin aurretik altueran 60 zentimetro igotzerik ba ote zeukan komentatu zigun, ostatu moduko bat egiteko ideia zerabilkiela buruan. Elkarrizketa informal bat izan zen, ez zen ezer onartu, baina berehala etorri zitzaizkigun auzokoak altuera igotzea onartu genuela eta kexuka. Gero bista eta argien zortasunarekin ibili dira. Goikokoa partzela pribatua balitz hiru metroko tartea utzi beharko luke, baina publikoa da eta ezin dute horrelakorik eskatu. Horrela ez balitz Patxanganeko eraikina altxa zenean eurak utzi behar zuten hiru metroko tartea", esplikatu digu.

◀ ANTXOKA AGIRRE

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA



Harategi kalea, 25 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Poigonoa, Patxita Etxezarreta kenduta, hutsik

Gauza jakina da etxebizitzarena dela jendearen kezka nagusienetako bat. Batipat gazteen artean. Etxebizitzak oso garesti daude, askok ezin du bat erosi eta gurasoen etxean edo alokairuan gelditu behar izaten du, eta eroatera animatzen direnak ere urte askotarako karga hartu behar izaten dute euren gainean. Han eta hemendik egin izan dira proposamenak arazoa gutxienez arintzeko, baina ez dirudi irtenbide errezik duenik.

Eskualdeko EH izan oraingoan proposamen bat aurkeztu duena. Etxebizitza hutsetan zentratu dira eta joan den azaroaren 30-ean Azpeitiako pentsiodunen egoitzan eman zuten prentsaurrekoan azterketa bat eta neurri batzuk eman zituzten ezagutzera.

Urola-Kosta eskualdeko etxebizitza hutsak arakatu dituzte herriko zentsuetan, eta oso kopuru altuekin egin dute topo. Guztira eskualdeko etxebizitzaren %28a omen dago hutsik, zifra absolutuetan 8.400. Zarautzek guztira 10.800 etxebizitza dituela erreferentziatzen harturik kupuru garrantzitsua bistakoa denez.

Aipatu etxebizitza huts bezala zentsuan halaxe jasota dauden guztiak hartu dituztela. Hau da bigarren etxebizitza bezala erabiltzen direnak, hilabete batzuetarako bakarrik alokatzen direnak, ezertarako erabiltzen ez direnak e.a.

Herriz-herri Aian %39a da etxebizitza hutsen zenbatekoa, Aizarnazabalen %25, Azkoitian %20, Azpeitian %25, Beizaman %54, Errezilen %37, Getarian %27, Orion %22, Zarautzen %33, Zestoan %31 eta Zumaian %23.

Gure herriari dagokionez 3.434-tik 804 dira hutsik dauden etxeak. Adibide bat jartzearen, eta denak juntatuko bagenitu, Poligonoa, Patxita Etxezarreta kenduta hutsik legoke, edo Amaiako Plazatik paolaldera eta hondartza aldera dauden etxe guztiak.

Egoera honen aurrean hainbat neurri proposatu zituen eskualdeko EH-k. Hasteko Udalen aurrekontuetan azterketa hau sakontzeko, etxebizitza hauen egoera ezagutzeko, jabeak identifikatzeko e.a, partida bana onartzea proposatu zen. Gero Udalek etxebizitza hauek merkaturatzeko




konpromezua eskatu zuten eta horretarako plan bat egiteko beharra azpimarratu. Neurri konkretuak ere proposatu zituzten: etxebizitzaren lan poltsa publiko bat, erosle, saltzaile eta interesatu guztientzako informazioa bideratuko lukeena, osatzearena; merkaturatzea erreteko tasak jeitsi, alokairu kontratuetan udaletxea abal bezala aurkeztearena e.a; eta etxebizitza hutsak zergen bidez grabatzeko aukera irekitzea, egun legez ezin baita horrelakorik egin.

Udaletxeetan mozio bat aurkeztuko omen dute neurri guzti hauekin.


◀ ANTOKA AGIRRE

Etxebizitza banaketa (auzoka)	Etxebizitza kopurua Hutsik daudenak	Biztanle kopurua
Alde Zaharra	587	191
Ensanche (Basadi, Aita Mari, Alai, P. Etxezarreta)	1084	147
Larretxo eta San Telmo	376	113
Moila (T. Agirre eta M. Mariñela)	52	20
Paolaldea	525	138
San Jose eta Odieta	214	38
Auzoak (Artadi, Oikia, Santixo, Jadarre, Narrondo, Txikiardi, Basusta eta Estazioa)	484	143
Besteak (baserriak, ...)	112	14
Guztira	3434	804





ekin
elektrizitatea, s.l.



instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía



Televisión
Instalador
Oficial

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777



ERTZ
informatika

ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

2001 ean Baleike hamabostekari
bihurtu eta **harpidetza** bidez
bakarrik banatuko da

ez gaude salgai

egin zaitez harpidedun!!



Harpidetza orria

Orri honetako datu guztiak bete eta honako tokietako
batean utz dezakezu:

- Baleikeko lokalean
- Foronda kultur etxean
- Taosa liburu-dendan
- Aizpurua liburu-dendan

Bestela deitu arratsaldez 943 861545 telefonora edota bidali
mezu bat gure helbide elektronikora:
baleike@topagunea.com

Urteko kuota (22 zenbaki): 4.000 pta.

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

KONTU ZENBAKIA (20 digituak):

OHARRA: Dagoeneko harpidedun zaretenei automatikoki berrituko dizuegu harpidetza, kontrakorik esaten ez badiguzue behintzat.



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezarreta, 6

Tel. 861078


Nik ez dut ulertzen esaten denean “ni kristaua naiz baina ez dut praktikatzen”

Txomin Zabaleta Zumaiaiko parroko berriarekin izan gara solasean. Erabat lanpetuta aurkitu dugu bere bulegoan, oraindik ere bere eginkizun berrietan, herri berri batean kokatzen. Gaztea da (29 urte), elgoibartarra eta Asintxiok utzitako hutsunea betetzera dator.

■ **La bi hilabete pasa daramatzazu Zumaian zure kargu berrian. Zer moduz orain arteko esperientzia? Ezagutzen al zenuen Zumaia lehendik?**

Gutxi, noizbehinka lagunekin etorrita, baina aspaldi. Txikitan-eta hondartzara ere etorri izan ginen, baina gutxi ezagutzen dut. Egia esan, astirik ere ez dut izan, hainbeste gauzaren artean eta gainera ez denez bakarrik Zumaia. Oikia, Aizarnazabal, San Migel-eta ere hor daude eta oso lanpetuta gabiltza. Asmoa eta gogoia badauzkat, baina oraingoz ezin dizut inpresiorik ere esan...

■ **Lan askorekin, beraz?**



Ni beste herri batetik nator eta gainera ez dut parrokia bakarren erantzukizuna, lehen esan ditudanak ere hor daude eta horrek esan nahi du ikusi egin behar dudala nola funtzio-

natzen duten gauza guztiek, jendea ezagutzen ere ahalegindu egin behar da... egunaren bukaerarako leher eginda bukatzen duzu eta kalean ibiltzeko ere astirik ez dut izan ia.

Amertze
Foto

profesionalak gara etor zaitez!

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

3 Zer moduz aurkitu duzu Zumaiako Parrokia?

Beno, nik uste dut giza baliabide talde interesgarria eta oso langilea aurkitu dudala; pastoral kontseiluko kideak eta oso jende erantzukizun handikoa, oso sartua eta lan egiteko gogo handiarekin. Hori da azken batean garrantzitsua, lan egiteko gogo.

Gero, eliza nola ikusi dudan? Harrizko elizari begiratzen badiogu, zailtasun handiekin gora iristeko: eskailera asko ditu eta adibidez elbarri daudentzat-eta zailtasun asko. Harrizkoa ez bestelako elizari dagokionez, nik uste beste zailtasun batzuk ere badituela, gazteei-eta bidea zailtzen dietenak: ospakizunen moduetan eta... suspertu eta biziberritu egin behar genuke zentzu horretan Kristau elkarte gogoa, eta eliza ez dadila izan harri pilo bat, baizik Kristau elkarte bizi bat.

3 Ezagutu al zenuen Asintxio?

Bai. Hemen gurekin dagoen Aitorri eta bioi Lazkaon erretiro bat berak eman zigun.

Herriarengan pena handia sortu zuen bere heriotzak, oso gizon maitatua eta langilea zen. Hemen ikusi ditut hainbat eta hainbat lan berak egindakoak... ardura pixka bat ere ematen dit horrek. Ni ez naiz Asintxio bezalako eta ni saiaturiko banintz Asintxio izaten seguraski gaizki egingo nuke.

3 Zein da zure orain arteko ibilbidea?

Hiru urtez Legazpin apaiz egona naiz eta lehenago diakono egon nintzen Tolosan bi urte, eta horren aurretik seminarista egon nintzen Irungo

parroki txiki batean bi urtez. Aitor ere han egon zen nirekin.

Seminarioko urteetan Elgoibarko parrokian ere buru-belarri sartuta ibilia naiz.

“Ezkonduta nago eta ez dut praktikatzen esan al daiteke?”

3 Beraz oso gazterik egokitu zaizu oraingo ardura hartzea...

Nik sarrerako eukaristian esan nuen bezala, eskerrak eman nizkion gotzainari, nigan konfiantza izatearren kargu hau ematean. Dena den, oraindik oso berri ikusten dut neure burua, baina ahal dudana egingo dut eta gainera ez nago bakarrik, beste hiru apaiz ere badira eta haiekin eta sekularrekin oso "ekipo" sentitzen naiz.

3 Sar gaitezen ur handiagotan. Nola ikusten duzu orokorrean elizaren egungo egoera, funtzionamendua...

Ez naiz aldaketa zalea, ezta ohikeria zalea ere. Uste dut gaurko egunari erantzuten saiatu behar dugula, elizak ebanjelioaren zerbitzura egon beharra duela eta ebanjelioak gure gizarteari berri on bat adierazten saiatu behar daukala; guk Kristau elkarte lan egin behar dugu, honek gizarteari berri ona emateko modu egokiena aurkitu behar dugu. Donostiako Elizbarrutian ari gara egiten honi begira azterketa bat eta horren emaitzek argituko digute zerbait.

3 Aitor aipatu duzu lehen, Zumaian dagoen beste apaiz gaztea. Hark eta zuk puskatzen duzue apaiz zaharraren topikoa, zahartzen ari den Elizarena...

Bai, baina ni eta hura ere zahartuko gara eta... Zortea ere bada, baina hemen bi apaiz gazte gaude eta Zarautzen ere beste bi badira. Nik uste dut gaurko arazoa ez dela apaiz izateko bokaziorik ez egotea; arazoa bertan daukagu, gero eta bokazio gutxiago dago kristau izateko, besterik gabe. Zer esan nahi du kristau izateak? Horrek badu bere konkrezioa eta aplikazioa eta ez da apaiz izatea soilik.

3 Gazte zaren aldetik, apaizgintza bizitzeko beste modu bat duzu?

Ni Elgoibarko beste gazte bat naiz, bere bizitzan apaiz izatea planteatu zuena bere kristau bokazioari erantzuteko. Ni naizena naiz, ez dut bereizten orain apaiz, orain gazte. Zinera joaten naizenean, ez dauzkate 70 urteko pertsona baten gustuak, edo musika entzuterakoan, igande arratsaldea pasatzean...

3 Galdetzen dizut apaiz bizitzak oso mugatua dirudielako kanpotik begiratuta, eta beharbada are gehiago oraindik gaztea bazara...

Beharbada apaiz izatearen kontzeptu ezberdinak izan ditzakegu, onena apaiz izatea zer den jakiteko apaiz sartzea da. Beharbada eskemak puskatuko litzaizkizuke. Nik ez dakit jendeak zer uste duen, baina, gu beste edozein bezalakoak gara; jendeak ere, apaizak berak bizi ez dituen hainbat balio eta kontzeptu biziartzen dizkio apaizari berari.

3 Baina hor badago urte eta mende askotako historia eta kultura bat zenbait gauza pentsatzera eramaten gaituena : apaizei buruz, Elizari buruz...



KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA
Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrikoi eta herriko argietan
Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402
TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409



Hor dena den Eusko Jaurlaritzak berak atera zuen kanpaina bat, "ven y cuentalo". Bada hori esango nuke nik ere. Estereotipo horiek badaude jendearengan, egia da, eta jende horrek berak esaten du Elizak aldatu beharko lukeela. Baina gero apaiz gazte bat kalean-eta ikusten badute, denetarik esateko kapaz dira. Hor kontraesan asko ditu jendeak. Eta ez dut esan nahi eliza aldatzea apaizak poteatzera irtetea denik. Elizak aldatu behar duela pentsatuz gero, jende hori etorri eta saia dadila aldatzen.

❑ Zuk zer aldatua ikusten al duzu?
Egunero aztertu eta ikusi behar da eta beti dago zer aldatua eta zer egina.

❑ Mundua bera nahiko degradatuta dagoela esan daiteke, balio asko galdu egin dira, iskanbila nonahi... Zuk non lan egin beharra ikusten duzu zauden lekutik?

Niretzat, kristautasuna bizitzeko modu on bat da eta uste dut kristau balioek laguntzen digutela kalean eta gizartean ondo bizitzen. Horrek ez du esan nahi, noski, kristau balioez kanpo ez dagoenik beste baliorik.

Nahiz eta ñoño kutsu bat izan beharbada, Kristau balio garrantzi-tsuena agian elkar maitatzea da, oinarri hori izanik ez da gutxi, baina urrutit dago mundua horretatik. Horrek ez du esan nahi, dena den, ez dugunik horretan saiatu behar.

Egia da mundua nahikoa degradatuta dagoela, pertsonaren hominizazio prozesua oso aurreratuta dago baina ez humanizazio prozesua... Horretan datza gure eginkizuna.

❑ Baina egia da Elizak eragina duela jende askorengan eta Elizako zenbait estamentutatik datozen mezuek zentzu batean ala bestean eragiten dute kristauengan: abortoaren gain, preserbatiboaren erabileran...

Hor bi gaiak bereizi egin behar dira, abortoarena eta prebentzioarena, eta kontuz hitz egin behar da, askotan egoera larrien baitan kokatzen delako lehenengoa.

Baina nik ez diot inori esango zer egin


gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

Gure Txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

behar duen, hori manipulazio hutsa da. Nik uste infantilismo asko ditugula eta heltze prozesu bati ekiteko ez da bide onena jendeari zer egin behar duen esatea. Hobe da hezitzaile izatea eta guk zenbait kriterio eta planteamendu erakutsi behar ditugu, bakoitzak erabaki dezan zer egin behar duen, zer den onuragarri eta zer ez.


Ez dizut nik Aita Santuak dioenaren konturik eskatuko, baina hark pobrezia ikaragarria eta gehiegizko biztanleria dagoen lurraldeetan ere preserbatiboen erabilera salatzen du eta hori Aita Santuaren hitza da, Jainkoarena jende askorentzat...

Baina hori ez da Jainkoaren hitza, Erromako Gotzainaren hitza da. Badu bere pisua, baina ez da Jainkoaren hitza.

Guk kontuan izan behar dugu Donostiako elizbarrutiaren parte garena, nahiz eta Eliza katolikoaren, mundu guztikoaren parte izan. Azken batean, gure kristau izatean bizi behar ditugu gure balio guztiak, gure kristautasuna gure kristau elkarteetan bizi behar dugu, kontuan izanik orokorrean zer esaten den baina...

Nik ez dut ulertzen esaten denean "ni kristaua naiz baina ez dut praktikatzeko". Zer da hori? Ezkonduta nago eta ez dut praktikatzeko esan al daiteke? Ezkonduta bazaude, pertsona bat maite duzu kontsekuentzia guztiekin; bada, kristau bazara ere bai. Eta konsekuentziana ez dut esaten gauza kaltegarri bezala, baizik eta koherentzi moduan gure bizitzan

◀ **JON MAIA**



Galdera laburrak:

Noizko apaizak ezkondu?

Ideiarik ez.

Ba al dago zerurik?

Hala espero! Bestela erridikulu ederra egiten ari gara!

Eta ba al dago infernurik?

Infernuko su mingarretan jende asko bizi da. Hil eta gero ez dakit egongo den infernua, baina bizirik gaudela elkarri infernu asko eskaintzen diogula bai, argi eta garbi.

Ikusiko ote dugu inoiz hemen emakumezko apaizgintzan?

Beste eliza batzuetan badira, zergatik ez?

Zein dira zure afizioak?

Ez dakit oso ohikoak diren, baina asko gustatzen zait anbulantzien mundua. Gurutze gorrian denbora asko eman dut eta anbulantzien mundu hori asko gustatu izan zait beti. Irratizalea ere beti izan naiz, nahiz eta orain denborarik ez izan.

Zer iritzi duzu erlijio mota ezberdinen zabalkundeari buruz?

Ekumenismoari buruz ari bazara, erlijio monoteistak dira onartuta daudenak, hau da, jainko bakarrekoak. Nik errespetatzen dut edozeinek egin dezakeen aukera, Jainkoarengana heltzeko orduan edo bere bizitzari balio onuragarri batzuk emate-rakoan. Hori bai, beti ere sekta bat ez bada. Jendeak erlijioetan berak bilatzen duen zerbait aurkitu nahi du eta errespetagarria da bere aukera. Hori bai, horrek ez du esan nahi ados nagoenik "religion a la carta" moduko batekin, askotan horrelakoa bihurtzen baita. Askotan hau Hipermerkatu handi bat bihurtzeko arriskua ikusten da: "Nik orain bataio bat nahi dut" eta bataiatu egiten du inongo mamirik gabe; nik orain elizan ezkondu nahi dut, marko polita delako" eta kito ez dute ezer gehiago jakin nahi. Joño, izan gaitezen kontsekuenteagoak, zuretzat Eliza ez bada ezer, zertara joaten zara elizara ezkontzera?





San Pedro Txiki eta Txikienak: kantuz kantu Pariseraingo

Bat, bi, hiru, hamar, hoge, berrogeita hamar... laurogei. Lauregei haurrek osatzen dute une honetan Zumaiaiko San Pedro Txiki eta Txikienak Abesbatza. Laurogei haur eta laurogei ahots garden asmo baten atzetik: ahal den heinean abesten jarraitzea, eta egoerak uzten badu, helduen abesbatzan abesten jarraitzea.

Haur abesbatza hau albiste dugu azken egunetan lehen diskoa kaleratu dutelako. Hamar urteko lan baten fruitu nagusietako bat. Hamar urte daramatzate Pili Aizpurua eta Maria Eugenia Doval herriko haur gaztetxoan artean abesteko gogo hori suspertzen. Hasiera batetik San Pedro Txiki abesbatzaren helburua Parrokiko San Pedro Abesbatzarentzat ordezkioak aurkitzea zen. Ahotsak trebatu, kantuak ikasi eta 16 urte bete ondoren, gaztea abesteko gogoarekin bazegoen eta helduen abesbatzan leku huts bat aurkitzen bazen, behintzat, Zumaiaiko abeslari helduen alboan egoteko aukera izango zuen gaztetxoak. Hortan aritu dira bi emakume langile hauek, harrobi bateko arduradun izango balira bezala, abesteko grina erakutsi duten haurrak abesbatzaren mundura bideratzen.

Berrogei lagun ingururik hasi ziren orain hamar urte, eta aurten laurogei haur dituzte beren eskutan. Ez dute pentsatu ere egin abesbatza txikian partaide izan nahi duten haurren kopurua mugatzea, beren esanetan ezin baitaio kantatzeko gogoa duen haur bati ezezkoa esan. Bost urte inguru-ekin hasi eta hamasei urte arte irauten dute haurrek San Pedro Txiki abesbatzan. Handik aurrera, norberak bere bidea aukeratzen du. Batzuk helduen abesbatzan sartuko dira, besteek betirako utziko dute kantuen mundua.

Orain denbora gutxi arte, nahiko modu isilean aritu dira lanean, beti ere, helduen abesbatzaren itzalean. Helduen eta edadetuen abesbatzek herrian abesten bazuten, hasierako kantari moduan aritzen ziren San

Pedro Txiki eta Txikienak abesbatzako haurrak. Abesbatzen jaialdi hauetaz aparte, Zumaian behintzat oso aukera gutxi izaten zuten haurrek beraien benetako balioa erakuskeko. Hemendik kanpora, ordea, ederki dakite zein den abesbatza honen benetako maila. Horren adibide bezala, aurtengo Lourdeseko santutegira egin duten bidaia da. Gaztetxo hauek milaka erromes eta fededunen aurrean abesteko aukera izan zuten, Estatu frantziarreko santutegi ezagun horretan ospatzen den nazioarteko mezan. Une hori izan zen bidaia horretako gailurra, baina ez beraien ahotsen balioa erakuskeko izan zuten aukera bakarra, Lourdesera hurbildu ziren gaixo eta erromesak zur eta lur utzi baitzituzten behin baino gehiagotan. Egin zuten lan bikainaren erakusgarri, aipatu behar da

Donostiako apezpiku den Juan Maria Uriarteren zoriona jaso zutela.

Zumaiara bueltatu eta udararen atarian zeudela, Juan Carlos Irizar musikari eta konposatzailearen disko batean abesteko paradarekin aurkitu ziren. Musikari honek entzun omen zuen kostaldeko herri honetan abestea maite zuten haur batzuk bazirela, eta bertako arduradunekin jarri zen harremanetan. Irizarrek disko pedagogiko pare bat ateratzeko asmoa zuen, eta berak konposatutako musikaren euskarri bezala haurren ahots batzuk behar zituen. Herriko haurrak, noski, aukera berri horren aurrean oso pozik. Ahotsen grabazioak Maria eta Jose Ikastetxeko antzokian egin ziren udaberriko asteburu batean zehar. Irizarren esanetan, txundituta geratu zen haur hauek erakutsi zuten lasaitasunagatik. Une hartan Irizarrek San Pedro Txiki eta Txikienak Abesbatzak grabatu behar zuen lehen diskoan lagunduko zuela hitz eman zuen.

Hitza bete du Oñatiko musikariak. Beti ere bere neskalagun den Miren Itziar Aizpurua alboan zuela gogor aritu dira disko hau aurrera eramateko. Bi asteburutan zehar egin ziren grabazioak, oraingoan ere Maria eta Jose Ikastetxean. Irizarren diskoarekin alderatuz, askoz ere zailagoa zen grabazio hau aurrera eramatea. Disko pedagogikoan ez ziren haur asko abesten aritu eta honetan laurogei ziren parte hartzen zuten ahotsak. Nahiko gogorra izan omen zen grabazioa, ahots denak kontrolatzea nahiko zaila baita. Haurrak beti ere oso lasai agertu ziren diskoaren grabazioan, urduritasun izpirik gabe.

Kolaboratzaile ugari izan zituzten abesbatzako haurrek disko honetarako. Musika Eskolako haurrak, Josefina Azpeitia akademiako akordeoi eskolako haurrak, trikitilariak, etab. Hala ere, disko honetako motorra Juan Carlos Irizar izan da. Bera jarri zen Madrileko Vaso Music disketxearekin harremanetan, berak ekoiztu du diskoa, berak egin ditu moldaketak, eta hori gutxi bazen, bere kantu bat ere abestu dute herriko haurrek.

Abestiei dagokienez, 19 abesti dira disko honetan aurki ditzakegunak. Kantu herrikoiak, Xabier Lete, Iparragirre edo Mikel Laboa bezalako musikarien kantuak, habanerak, talde gazteen abesti ezagun baten bertsioa, denetik entzun daiteke lan honetan. Zumaiari dagokionez, herritarrek ederki ezagutuko dituzten bi abesti entzun daitezke. Alde batetik San Telmo Martxa eta bestetik "Erremolatxa" izenaz ezagunagoa den "Zumaia tiene a su entrada" kantua.

Abenduaren 2an izan zen kontzertu batekin aurkeztu zen Zumaian disko hau. Espero zen bezala, Maria eta Joseko antzokia txiki geratu zen bertara hurbildu zen jendearentzat. Haurrak oholtzara igo eta berehala entzun ziren lehen txalo zaparradak. Kontzertua aurrera zihoan heinean txaloak ugaldtu egin ziren, eta azken kantuetan, abeslariak eta abesbatzaren zuzendari bera goitik behera beltzez makillatuta agertu zirenean, bertara hurbildu ziren entzuleen artean poza nagusitu zen.

Diskoa antzoki bertan jarri zuten salgai, eta espero da egun hauetan herriko hainbat dendatan aurkitzea salgai. Lortzen duten diru guztia abesbatzarentzat izango da. Izango dute, bai, non gastatu. Jasotzen duten diru guztia Parisera egin behar duten bidaia ordaintzeko izango baita. Azken hilabeteetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte dirua lortzeko: zozketak, otarteko salmentak, etab. Jakina da Parisera joatea eta bertan egun batzuk pasatzea oso garesti ateratzen dela. Ohartu behar haur hauek ez doazela oporretara Parisera, abestera baizik. Bertan hiru emanaldi emateko asmoa dute: Unesco-ren egoitzan, Paris hiriko eliza batean eta, ikusgarriena, La Defense guneko arku erraldoiaren azpian.

Isil-isilik eta ia inor ohartu gabe, herriko haur abeslariak Parisen abestera heldu dira. Helduen abesbatzerako harrobi izateaz gain, bere bidetik doan abesbatza bat bihurtu zaigu talde hau. Ea nork espero zuen hau. ◀ **JUAN LUIS ROMATET**

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058



Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373



Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446



Urumea, 6 Tel. 862083

julio curiel



Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

Perretxiko haluzinogenoak

Perretxiko haluzinogenoak oso modan jarri dira azkenaldian, nahiz eta aspal-ditik izan erabiliak. Moda horren arrazoi nagusia beren efektuetan datza gehienbat. Efektu horiek ez dira beti berdinak, izan ere, dosiaren arabekoak dira. Dosi txikiekin asaldaketa edo alaitasun gehiegia gertatzen da; handiekin, berriz, haluzinazioak, kolore eta irudi aldaketen irudipena: sarritan jan edo kontsumitu dituenari iruditzen zaio berari gertatzen zaiona kanpotik ikusten ari dela. Gonbitolarria, beherakoa eta tripako mina ere ohikoak dira.

Arriskuei dagokionez, "malos viajes" edo direlako "bidaia txarrak" aipatzeak dira. Ez dago garbi azaltzerik zer diren, gehiegi jorratu gabeko gaia baita, baina ez daukat zalantzarik ez direla oso atseginak izango.

Beste arrisku bat, deskuidatu eta perretxiko pozoitsuak kontsumitzea litzateke. Alegia, haluzinogenoak direlakoan, toxikoak bildu eta kontsumitzea. Probatu nahi dituenak proba ditzala, baina jakin dezala lehenik zein arrisku dituen.

Lege aldetik, esan daiteke ez direla legez kontrakoak. Zehazte aldera, esan dezadan edukitzea eta kontsumitzea ez dela legearen aurkakoa, baina egostea, moztea edo txikitzea bai, saltzeko egiten bada.


Drogatzat jota daude eta psilocibina eta psilocina (mongiek dauzkaten bi osagai) inoiz erabili izan dira psikotrikan. Botika moduan, perretxiko

haluzinogenorik ezagunena Amanita Muscaria da. Garrantzi handia du, garai batean espirtuekin harremanetan jartzeko erabiltzen omen zena. Perretxiko handia da, bere txapela bost eta hogeitazentimetro arteko diametroa irits daiteke. Kolorea gorri-gorria du eta gehienetan garatxo zuriak ditu. Ertza ildaskatua. Kirtena eta orriak zuriak. Lehenak eraztuna eta bulba ditu, baina bere bulba ez da kuletoarena bezalakoa, hau da, zorro itxurakoa garatxo inguratutako bulbo edo koskor bat baizik. Mami zuria eta usain ahula du. Udan eta udazkenean ateratzen da, batez ere urki eta koniferoen azpian.

Bere kontsumoak eragin hauek ditu: lehenengo gonbitoa eta beherakoa, gero alaitasuna eta azkenik ikusten diren eta entzuten diren gauza irrealak daude. Bi edo hiru ordu geroago itzultzen da lehenera hartu duena.

Badira, ordea, gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari diren beste perretxiko haluzinogeno batzuk: mongiak edo psilocybeak.

Azpimarragarriena psilocybe semilanceata dela esango nuke, Europako psilocybe bakarra dela uste dut-eta. Oso txikia da eta asko hartu behar dira jan eta bere eraginak nabari daitezen. Titi bat duen kanpaiaren itxura du. Likatsua da eta bere kolorea ke-nabarra, arre-horiska edo horiberdexka izan daiteke. Orriak gris-olibaskak dira eta beltzaxka koloreko bihurtzen dira denborarekin. Kirten



Psilocybe semilanceata

luzea eta kurbatua du, kolorez okre argia. Mamiak ez du ia usainik. Ez da oso arrunta eta abuztutik hasi eta urrira bitartean aurki daiteke baso ertzetan.

Psilocin eta psilocibina dextente dauka, eta honako eraginak sor ditzake: haluzinazioa, barregurea, alaitasun neurrigabea, ikuspen izugarriak, etab.

Beraz, hor badaude, perretxiko haluzinogenoak zerbaitetarako egongo dira, baina utzidazue gomendio bat ematen: kontuz perretxiko haluzinogenoekin!

◀ JOXE JOAKIN AIZPURUA


HARATEGIA URDAITEGIA
 Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081


taberna JUSTA
 eguneroko bazkariak
 Erribera kalea, 20


KABI
 T. BERN - ZUMAI
 Tel. 143379

II. Bertso Astea Zumaian

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurten ere Bertso Astea antolatu du Zumaiako Bertso Eskolak, Udalaren babesean. Lehendik egiten ziren bertsolari gazteen saioari eta bertso-paper lehiaketari, beste bi ekitaldi nagusi erantsiko zaizkie Bertso Astea osatzeko: mahai-inguru edo hitzaldi interesgarri bat, batetik, eta Amurizaren emanaldi berezia afalondo giroan, bestetik.

Gogoan izan, bestalde, abenduaren 22an amaituko dela Gabonetako III. bertso-paper lehiaketara, iaztik "Joanito Dorronsoro saria" izena duenera, lanak aurkezteko epea.

Gaia: "Zumaiako txoko, bazter eta inguruneak".

Oinarriak Foronda Kultur Etxean eska ditzakezu.



EGITARAUA

- Abenduak 27, asteazkena

MAHAI-INGURUA:

"Bertsolaritza eta ahozkotasanaren kultura garaikidea".

Hizlariak: Andoni Egaña eta Fermin Muguruza

Foronda Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan

- Abenduak 28, osteguna

AFARIA eta "Lazkao Txiki bat-bateko sorgina" **BERTSO EMANALDI**

BEREZIA Xabier Amurizak eskainia. Txartelak salgai Trapaia, Tomas eta Inpernupen.

Anade elkartean, gaueko 9etan

- Abenduak 30, larunbata

BERTSOLARI GAZTEEN JAIALDIA

Bertsolariak:

Amaia Agirre

Nahikari Gabilondo

Xabier Legarreta

Fredi Paia

Jokin Uranga

Julen Zulaika.

Gai jartzailea: Zumaiako Bertso Eskola.

Aita Mari zinean, gaueko 10etan

Jaialdi bukaeran bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517



- * Depilaketa (beroa, epela)
- * Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- * Aurpegia edertzeko sendabideak
- * Gorputza edertzeko sendabideak
- * Lurrindegia
- * Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35



- * kamisetak
- * txiskeroak
- * paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

Jaime Osa lehen zumaiarra IV. Zakila Biran

Pasa den abenduaren 8an korritu zen Zumaiara jada laugarren ekitaldia betetzen duen Zakila Bira kros herrikoa. Aurreko urteetan udazkenearen lehen asteetan korritzen zen froga hau. Aurtengoan, aldiz, abenduaren lehen egunetara pasatu dute. Egun aldaketarekin batera, ordua ere aldatu da. Aurreko ekitaldietan arratsaldean korritzen zen, eta aurtengoan goizeko hamarretan. Aldaketa hauetan datza, agian, Zakila Bira honek izan duen parte hartzaile jaitziera. 225 korrikalari inguruk hartu zuten parte hiru mailatan banatuta: ezinduak, gizonetzkoak eta emakumezkoak.

Eguraldi eguzkitsuarekin korritu zen laugarren ekitaldi hau. Eguraldi aproposa, nahiz eta ibilbidearen zati batzuetan haize bolada gogor batzuk jasan behar izan zituzten korrikalariak. Ohizkoa den bezala, lehenak irtetzen gurrpil aulkietan parte hartzen zuten kirolariak izan ziren. Lehen metroetatik argi zirudien Iñaki Castañeda donostiarra izango zela garaile, izugarritzko abiadan irten baizen. Pronostiko guztiak betez, kirolari donostiarra izan zen helmugan lehena, sekulako denbora eginaz, gainera. Iñaki Castañedak 20 kilometroak egiteko ordubete baino gutxiago behar izan zituen eta bigarren heldu zen Pier Miura donostiarri ia 12 minutuko aldea atera zion.



Ezinduen ondoren beste korrikalari guztiak irten ziren Erribera kaletik. Talai-Petik buelta eman ondoren, taldetxo batek laisterketaren burua hartu eta ibilbideko zati gogorra lastertzeari ekin zion. Aipatuenez, 20 kilometroko ibilbidean zehar, zati oso gogorak izan ziren, batez ere haizeak modu oso bortitzean jotzen zuten

Joseba Yeregui omendua

Zakila Bira korritzeari ekin zaionetik, antolatzaileek Zumaiako atletismoan historia egin duten kirolariak omendu dituzte. Aurtengoan omendua Joseba Yeregui izan da. Lehen ekitalditik ari ziren korrikalari hau omentzeko asmoarekin, eta azkenean lortu dute. Joseba Yeregui izan zen lehen zumaiar federatua atletismo munduan, eta nahiz eta oso denbora gutxian aritu lasterkatzen, maila aparta erakutsi zuen orain 50 urte.

lekuetan. Horrela, Arroatik Iraetara bitarteko bidean lasterkariak asko sufritu omen zuten.

Gizonezkoen mailan, Zakila Biraren laugarren ekitaldi honek irabazle



LIBRURUEN
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Juan Belmonte, 6



Loitz

* Eskola eta bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



bizkaitarra izan zuen, Gontzal Cuadrado gernikarra, hain zuzen. Bigarren postuan beste bizkaitar bat izan genuen, Durangoko Pablo Gomez, eta hirugarren azpeitiar bat, Iñaki Zubizarreta. Maila honetan lehen zumaiarra Jaime Osa izan zen, irabazlearengandik minutu eta erdira heldu zena, bederatzigarren postuan. Bigarren zumaiarra Mariano Sanchez beteranoa izan zen. Hirugarrena, aldiz, Mikel Sasiain. Azken hau Zestoan erroldatuta dagoenez, ez zuen eraman hirugarren zumaiararentzako saria. Garaikur hau Jon Ulaziarentzat izan zen.

Emakumeei dagokionez, Iratxe Aranburu zarauztarra izan zen garaile. Korrikalari honek sekulako alde atera zion bigarren postuan heldu zen Maria Pilar Arriola elgoibartarrari: 15 minutukoa. Hirugarren postua Bergarako Virginia Rubiorentzat izan zen. Helmugara heldu zen zumaiar bakarra Karmele Sasiain izan zen. Kirolari hau zortzigarren iritsi zen helmugara. ◀ **J.L. ROMATET**

—SAILKAPENAK—

Ezinduak

1. Iñaki Castañeda	0:59:47
2. Pier Miura	1:11:23
3. Jose Antonio Iglesias	1:34:18
4. Lontxo Esnaola	1:36:30
5. Mikel Poza	1:47:07

Gizonezkoak

1. Gontzal Cuadrado	1:07:48
2. Pablo Gomez	1:07:55
3. Iñaki Zubizarreta	1:08:23
4. Martin Irizar	1:08:54
5. Iñigo Agirre	1:08:55
6. Iñaki Arakistain	1:09:12
7. Ander Otegi	1:09:35
8. Jose Ramon Orbeagozo	1:10:07
9. Jaime Osa	1:10:12
10. Jose Alberto Janariz	1:11:38

Zumaiar onenak

1. Jaime Osa	1:10:12
2. Mariano Sanchez	1:12:49
3. Mikel Sasiain	1:14:09
4. Jon Ulazia	1:15:58
5. Xabier Irureta	1:15:59
6. Jon Sasiain	1:17:46
7. Juan Ignacio Alkorta	1:18:10
8. Jesus Mari Iburguren	1:18:39
9. Peio Santamaria	1:18:48
10. Julian Igual	1:20:11
11. Felipe Agirre	1:22:30
12. Vicente Villar	1:26:02
13. Benito Jose Duran	1:27:03
14. Iosu Egaña	1:27:27
15. Jesus Mari Martin	1:28:00
16. Manu Olaizola	1:28:42
17. Roberto Martin	1:28:44
18. Carlos Moreno	1:29:32
19. Ramon Otaño	1:30:28
20. Mikel Yeregi	1:30:29
21. Abundio Garcia	1:30:39
22. Xabier Azkue	1:32:04
23. Agustin Aizpurua	1:34:50
24. Bernard Caporossi	1:34:50
25. Jose Luis Aizpurua	1:35:21
26. Pedro Gaztañaga	1:36:29
27. Alfredo	1:38:36
28. Jose Antonio Amilibia	1:39:50
29. Jose Ignacio Landa	1:39:59
30. Jesus Mari Aginagalde	1:40:27
31. Iñaki Aizpurua	1:40:31
32. Teodoro Jimenez	1:40:36

Emakumezkoak

1. Iratxe Aranburu	1:15:21
2. Maria Pilar Arriola	1:30:15
3. Virginia Rubio	1:31:49
4. Begoña Salaberria	1:33:37
5. Gemma Segurola	1:34:37
6. Nerea Azpiazu	1:34:38
7. Pili Fernández	1:36:33
8. Karmele Sasiain	1:40:30



ile-apaindegia




ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

Gabonetan kirola egiten

Gutako askorentzat harrigarria eta ulertezina bada ere, badago Gabon jaietan kirola egitea gustatzen zaion jendea. Kirol fisikoa eta intelektuala. Mahai baten inguruan turroia kiloka jan beharrean baloi bat hartu eta jokoan aritzea gogoko dutena. Herriko tabernetan kalejiran aritzeaz gain, xake pieza batentzat taula gainean leku egokia bilatzen aritzen direnak. Kirola egitea atsegín duen jendea dagoela-eta, beste urte batez, eta jada badira hamar urte baino gehiago, Gabonetako torneoak antolatu dira Zumaian.

Hiru kirol motatan banatzen da aurtengo eskaintza: areto-futbola, paddela eta xakea. Hiru kirol mota horiek aukeratzearen arrazoia hau da. Mota hauekin kirolzaleek hiru modu dauzkatela kirola egiteko. Bakarka nahi badute, xake torneoan parte har dezakete. Kirola bikoteka egitea gogoko badute, azken urte hauetan hain modan dagoen paddelean aritzea besterik ez dute egin behar. Azkenik, kirolariak bere lagunekin parte hartu nahi badu, talde bat eratu eta areto futboleko txapelketan joka dezake.

1999. urteko ekitaldiarekin parekatuz, kirol mota bat desagertu da eskaintzatik: saskibaloia. Azken urteotan gero eta interes txikiagoa dago kirol honekiko eta horregatik kendu dute. Ez dago saskibaloit alderik Zumaian, eta kirol honetan aritzen diren lagunak gero eta gutxiago dira. Gainera, areto futbolarekin taldekako



kirolaren tartea beteta dago, eta antolatzaileek nahiago izan dute bikoteentzako txapelketa bat eratzea.

Gabonetako torneo hauek abenduaren 23an, larunbatean, hasiko dira jokatzeko eta datorren urteko urtarri-laren 5ean, Errege egunaren bezperan amaituko dira. Egun hauetan, ia egunero jolastuko dira areto futbol eta paddel partidak. Xake txapelketa, aldiz, oraindik ere zehaztu gabe dagoen arratsalde batean jokatuko da. Aurreko urtearekin alderatuz, aipatu behar da xake partidak Lubaki Kiroldegiko tabernan jokatuko direla, eta ez Foronda Kultur Etxeko liburutegi txikian. Aurreko urteko ekitaldian 8-9 lagunek hartu zuten parte xake txapelketa honetan. Normala den bezala, areto futboleko torneoan dextente gehiago izan ziren parte

hartzaileak, ohikoa da-eta 15-20 talde inguru aritzea futbolekoan.

Izen emateak Lubaki Kiroldegian egin beharko dira. Izena emateko epea abenduaren 20an amaituko da. Gogoan izan Gabonetako torneoan parte hartzeko, kirolariak 16 urte baino gehiago izan behar dituztela. Gabon hauetan kirola egin nahi baduzue, badakizue nora joan. Gehientsuenok partida bat ikustera joan gintezke... agian.

◀ JUAN LUIS ROMATET


Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64


MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
 - . Banakakoak
 - . Kolektiboak
 - . Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAIA

Zubimendi eta Agirre txapeldun

Giro polita bizi izan zen abenduko lehen igandean Odieta Pilotalekuan. Berrogeita hamar lagun ingururen aurrean jokatu ziren Zumaiako III. Esku Pilota Txapelketako azken bi partidak, hirugarren eta laugarren postua erabakitzen zuen partida, eta nola ez, txapelketaren irabazlea zein bikote izango zen erabakitzen zuena. Bi hilabete luzetan ia astero pilota jokoa ibili ondoren, txapelketaren azken partidara bi bikote heldu ziren: Zubimendi eta Agirrek osatutako bikote gaztea eta Azkune eta Osak osatutako bikote beteranoagoa. Zubimendi eta Agirrek finalerdietan Leiza eta Iztuetak osatutako bikotea hartu zuten menpean. Azkune eta Osak, aldiz, Iribar-Iribar aita-sumeak osatutako bikotea.

Ohikoa den bezala, kantzara lehenak ateratzen hirugarren eta laugarren postua jokatu behar zuten bi bikoteak izan ziren: Iribar-Iribar eta Leiza-Iztueta. Iribar aita-sumeak nagusi izan ziren ia lehen tantutik eta aukera gutxi eman zion Leiza-Iztueta bikoteari. Partida nola joan zen jakiteko, honen amaieran markagailuak erakusten zuen aldea ikustea nahiko esanguratsua da: 22-12. Hiru ordu laurden inguru iraun zuen partidaren amaieran Iribar-Iribar bikoteak izan zen txapelketako hirugarren postua lortu zuena.



Eguerdiko hamabiak eta erdiak oraindik jo gabe zeudenean hasi zen txapelketaren hirugarren ekitaldiaren irabazlea zein zen erabakiko zuen partida. Partidak bi zati izan zituen. Lehen zatian gerriko urdina zeramaten Azkune eta Osa izan ziren nagusi. Azkune aurrelariak lan dezente ematen zion gerriko gorridun Agirre atzelariari. Osak jokoari ederki eusten zion heinean, Zubimendi oso gutxitan sartu zen partidaren. Bereak izan ziren lehen zati honetako hutsik handienak. Markagailuan Azkune eta Osa ziren nagusi. Une batean bost tantuko tarte ere lortu zuten (5-10) eta bazirudien txapelketako garaile izango zirela.

Gerriko urdinekoak 14. tantora heldu zirenean (12-14) partida zeharo aldatu zen. Agirrek aurrean eta atzean ederki ziharduen eta Zubimendi bere joko onena erakusten hasi zen. Gorrien joko onarekin batera, Azkune eta Osaren beherakada etorri zen. Gauzak horrela, Zubimendi eta Osa 21. tantura heldu ziren (21-14) eta gainera sakea

gorriena zen. Partida guztiz erabakia zirudienean, urdinen erreakzioa etorri zen. Partida galdutzat jo gabe, burubelarri aritu ziren urdinak tantu bat bestearen atzetik lortzen. Momentu honetan lagun izan zuten Agirre atzelaria, partidako huts bakarrak egin baitzituen. Urdinak 19. tantura heldu zirenean, urduritasuna nabari zen gerriko gorridunen artean. Markagailuan 21-19 agertzen zenean etorri zen partidako tanturik ikusgarriena. Bikote batek egindako dejadari besteak bi-paretekin erantzuten zion; dejadari beste dejada, pilotakada bortitzari defentsa paregabea... Zaletuak eserlekuetatik jaiki eta oihuka hasi ziren lau pilotarien jokua txalotuz.

Ordubete inguruko partida baten ondoren, Zubimendi eta Agirrek osatutako bikoteak eraman zuen txapela etxera.

◀ JUAN LUIS ROMATET

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA

herea uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

BALEIKE

2000ko abendua. 74. zenb.

ZINE FORUM

Abenduak 27, osteguna

La gran ilusión (1937)

Zuz.: Jean Renoir


Akt.: Jean Gabin, Erich von Stroheim

Azken urte hauetan bezala, Gabon jaiak heltzearekin batera zine klasikoari tarte bat irekitzen zaio Aita Mari zinean Ostarrena Zine Klub taldearen eskutik. Orain pare bat urte *A Sangre Fría* eta *Johnny Guitar*-ez osatutako saio bikoitza ikusteko aukera izan zen eta orain urtebete eskas *El tercer hombre* pelikula mitikoa pantailaratu zen herriko zine aretoan. Aurten zine antimilitarista izango dugu protagonista. Zine mota horretako maisu-lan nagusietako bat izango da ikusgai Zumaian: Jean Renoir frantziarraren *La grande illusion*.

Jean Renoir, Auguste Renoir pintore ezagunaren semea, zine munduko maisuetako bat da. Bereak dira, besteak beste, *La regla del juego*, *El río* eta *Esta tierra es mía* klasikoak. Hala ere, bere lan ezagumena *La grande illusion* dela aipa daiteke. Bigarren Mundu Gerra hasi baino pare bat urte lehenago zuzendu zuen Renoir-ek gudaren aurkako alegatu hau. 1914tik 1917ra bitartean borrokatutako Mundu Gerran bizitako gertaera batean oinarritu zen Renoir oraindik ere hotzikarak sortzen dituen film gogor eta bikain hau aurrera eramateko.

Renoir-en zuzendaritza txapela kentzekoa bada, zer esanik ez film honetan lan egiten duten aktoreen lana. Bai Jean Gabin eta bai Erich von Stroheim zuzendari austriarra primeran daude 30eko hamarkadako maisu-lan honetan.

Idazlea: Patricia Sverlo



Un rey golpe a golpe

Ardi Beltzakoek aldizkaria ateratzeaz gain, hiru hilero liburu bat argitaratzeko lanarekin jarraitzen dute. Orain arte "Presoekin elkartasun kideak", "Prensa rosa, voto azul" eta "Gran Hermano, el precio de la dignidad" liburuak kaleratu badituzte, azken honetan Espainiako errege den Juan Carlos-en bizitza eta ekintzak hartu dituzte gaitzat. Liburuaren izena "Un rey golpe a golpe" da eta Borboneko Juan Carlos-en biografiatzat jo daiteke.

Onarpenik ez duen biografia den eanean, eta erregearen ezkutuko ekintzak kontatzeak dituen kartzelaratze arriskuak kontuan hartuta, liburuaren idazleak ezin izan du bere benetako izenarekin sinatu, eta Patricia Sverlo ezizena aukeratu behar izan du.

Biografia honek Espainiako erregea boterearen bila ibili den pertsona bat bezala erretratatu du, honen helburu bakarra errege izatea zelarik. Kolpez kolpe, bere bizitzaren ekintza nagusiak kontatzen ditu: anaiaren hilketa, aitari egindako traizioa, 1981eko otsaileko estatu kolpea, sexu arazoak, etab.

Kontuan hartuta zer pertsonaien bizitzan sartu diren Ardi Beltzakoak, ez da harrizkoa izango auzitegiek legez kanpotzat jotzea liburu hau eta dendetatik erretiratze agindua luzatzea. Hori dela-eta liburu interesgarri hau lehenbailehen erostea gomendatzen da.



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g

Tel. 861705

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 862387

Nikol  **Enea**
TABERNA

Amaiaki plaza

Tel. 861440



Rakel
estetika

kiromasajea
tatuajeak

Aita Mari 42, behea

TEL: 943 862093

abendua

27 ZINE FORUM

Klasikoen txokoa "La gran ilusión".
Zuzendaria: Jean Renoir

► Asteazkena 27, 22,15etan

Aita Marin

17 HAUR ANTZERKIA

TAUN TAUN taldearen "Txio txioka" (4-10 urteko haurrentzat)

► Igandea 17, eguerdiko 12etan

Aita Marin

24 SANTO TOMAS FESTA:

Kalakariak antzerki taldea, Musika Eskolako Trikitixa taldea, Zumaiako Bertso Eskola eta ikastetxeko taldeek alaituta. Jaia bukatzeko KIÑU taldearekin dantzaldia.

► Osteguna 21, arratsaldez herriko gaztetxentzat

25 UDAL MUSIKA BANDAREN GABON KONTZERTUA

► Astelehena 25, 13etan,

28 HAUR PARKEAK

► Abenduak 28, osteguna, egun osoan

► Urtarrilak 4, osteguna, egun osoan

Odieta pilotalekuan

7 HAUR ANTZERKIA:

DAR-DAR "Alizia bitxikerien lurraldean" (6 urtetik aurrera)

► Urtarrilak 7, igandea, eguerdiko 12etan

19 ANTZERKIA:

TXALO "Emakumea kapelarekin nahastu zuen gizonaren kasua"

► Ostirala 19, Gaueko 10etan

Aita Marin

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19,30

Institutuan

► Astegunetan, 16.00 - 20.00



ZUMAIAKO NATUR JARDUNALDIAK

Energia eolikoa: alternatiba?

Zumaiako Natur Taldeak, Udalaren laguntzarekin, aurtengo Gabonetako jardunaldietan energia eolikoaren gaia, hau da, haize indarrarekin energia lortzeko sistema, aukeratu du erakusketa eta ezatabidarako. Alhondegi zaharrean (Oxforren) ikusgai izango dituzue energia mota honi buruzko informazioa, alde eta aurkako arrazoiak, Euskal Herrian egiten ari diren proiektuak, hainbat talderen iritziak...

Mahai ingurua ere antolatu da iritzi hauek lantzeko eta eztabaidatzeko, eta irteera bat izango da zentral eoliko bat ondo ezagutzeko.

Azkenik, energiaren kontsumoari buruzko zenbait alternatiba azalduko dira, kontsumismoaren aurkako borroka eta teknika berriek energia berriztagarriak aprobetxatzeko ematen duten aukerak, hauen artean: itsasotik lortutako energia (mareak, olatuak), eguzkia, biogasa, energia geotermikoa (lur barneko energia), etab.

OPTIKA ZUMAI A



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

Nidel

▣ Hasteko komentaiguzue nola hasi zineten Nidel moduan.

Bueno, Aimarrek Pribatu (Shock) utzi ta gero komentau zigun ba nunbaiten jotzeko gogua zakala. Ta Gartzik leheno Burukin jotzen zian bateria, baina etzeon hola gruporikan ta ezerre. Gero egon ginan kantatzeko batenbat bilatzen.

- Saiatu ginan Kristinarekin, bueno, guk ez geneuzkan ideiak oso klaro, zer nahi gendun ta hori.

- Eske nahi gendun marrua batzuk, nesken marruak edo talderako.

▣ Baina azkenean Uhin dago kantatzen, eta erreziklatu bezela egin zerate, ez? Instrumentuak aldatu dituzue.

- Bai, nik behin ere enian kantau, eta Gartzik bai, musika eskolatik hasi huan gitarra eta bateria biak jotzen.

▣ Ta horrela zenbat daramazue, urtebete edo?

- Bai pixkat gehiago, Mutrikuko festetan komentatu nion Gartzixiri orain dela bi urte edo.

▣ Grabazioari buruz zer? Zer moduz?



- Denbora gutxikin ibili gaituk. Dandana ez diagu egin nahi gendun bezela. Bonboarekin bakarrik goiz oso bat pasa genian.

- Orain gauza dexente ikusten dizkiat aldatzeko bezela...

- Hor onena izango huan estudioara sartu baino leheno kuartopistas batian grabatzen dana ta orduan enpollatzen dek zer nahi deken leku bakoitzian... Baina gu jun gaituk radiokaset batian grabatuta... letra batzuk ateratzeko... eta...

▣ Letrak, aditzerakoan ez dakit oso ondo ulertzen diran, baina hor jarri dituzue azalean idatzita eta kuriosoak dira: hiru hizkuntzatan

daude. Hori zergatik egin dezue horrela?

- Hori, etzekiat. Hori nik beti eduki diat klaro ez daola zertan hizkuntza bakarra erabili beharrik. Ta gainera erreztasun batzuk emateizkik: neurri batean ezin bada erderaz sartu, igual ingelesez sartzia badakak, edo euskeraz, eta silabekin jokatzeko... eta zorionez edo zoritxarrez bilingueak gaituk eta horrekin ere jokatu egin behar dek.

Baina gero azkenean esanahia pixkat galduta edo abstraktuagoa bezela gelditzen da

- Kuestioa dek mezuak ez dula horren zuzena ere zertan izanikan. Neretzat



SIWA
Belardenda

Basadi 5C
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean *fidatzeko baimen guztiak*

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabillita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416



ez zikak ezta letra eduki beharrik ere, egon daiteke ahots bat letra gabe.

- Gainera oso mugatua zio; egiten dek letra bat hizkuntza batian baino gehio dana eta jendeak esaten dik: Bap-en zeran bezela (Ihesa) edo Ama Say bezela.

❑ Eta horrekin lotuz, ze talde gustatzen zaizkizue? Zeinen eragina duzue?

- Bueno, Euskal Herrikoak hola danik ados gaudenak: Dut deskarao, atzo ikusi gendun Akauzazte...

❑ Gero Bap-en bertio bat ere badaukazue zuzenean. CD-ak badauka esan dezuen Dut taldearen toke bat eta baita Bap-ena ere kantatzeko moduan batez ere.

- Bai, Bap-ena melodia batzuetan badauka eta Dut-ena matxakoia izate horretan. Gero honek marrua gehio egiten du.

- Hasieran saiatu nituan bulla baino gehio paranoia batzuk eta sartzen baina hutsa gelditzen huan eta gero hasi nituan pixkat eztarria lagatzen.

❑ Kanpoko talderik ez dezue esan.

- Gartxik Sepultura esango zian.

- Eske musikak bakarrik ez dik influitzen: tailerrian ikusten dituken aurpegiak, handik ertetzen haizenean daukaken malaostiak, hemen daon kiratsak...

❑ Eta bestalde, nola ikusten dezue Euskal Herriko panorama politikoa?

- Jode,... hori ezin dek publikatu...

- Ez zio beti egia esan beharrik.

❑ Bueno, orduan nola ikusten dezue Euskal Herriko panorama musikala? Ze, talde askok oso postura erreibindikatboa eta hartu dute letretan,

gero hainbeste aldiz errepikatutako topikoak bihurtu direnak.

- Aurreko batian entrebista batian talde bati galdera berdintsua egiten zioten eta tipoak erantzuten zion azkenian horrenbeste taldek gai bati buruz eta danak hain erreibindikatiboak... ba bukaerako bere mezua galtzen dala, nik ere hori usten diat.

- Hitza saturatzen darian zentzua galtzen dik... hori ere matematikako irakasleak esaten zian, eta egia dek.

- Egia da baita ere kontzertuetan eta gaztetxetan ezkerreko jendea biltzen dala gehiena, abertzalea...

❑ Eta nola ikusten duzue Fermin Muguruza bezelako bat?

- Pankarta andante bat mikrofono batekin.

- Gainera kuestioa da tipoak berak esan egiten dula, letretan ez badik zeozer erreibindikatiboak esaten bera ez zala musika munduan egongo.

- Honbre, garbi dao berak musika tresna bat bezela erabiltzen dula bere ideiak zabaltzeko.

- Ideia zabaldu, ideia zabaldu...

❑ Zuen kantetan zeozen erreibindikatiboak edo azaltzen al da?

- Gauza politikoetan ere sartzen nauk, baina ez dek hain garbia mezua. Adibidez Elizan kontra egotea normala dek, edozeinek egiten dik, baina prozesioen kontra... ume batzuk aingeru hegoak jantzita...

❑ Bukatzeko, kolaborazio bat ere izan dezute grabaketan...

- Bai, Adriana bakarrik... kanta baten zati batian pentsatu gendun neska baten ahotsa sartzia, baina ez gendukan inor. Eta erten ginan

estudiotik eta beno, hango taberna batean terrazan zegoen koadrila bat eta azkenian neska bat konbentzitu gendun, neska flipatzen. Sartu ginan eta aurrenengo intento bat egin gendun...

- Baina berak egiten zun aaaaaaaah de coro eta guk nahi genun aaaaaaaaah montaña rusakoa bezela... danik partitzen, aurpegira parre egiteak ere apuroa ematen ziona... gero jun zanian a parir jarri genian...

- Pelikula gore bateko marrua ere nahi gendun sartu, baina marrua bakarrik ez zan, atzian aditzen zan... aizkora bat.

❑ CD-a nora bidali dezute?

- Zumaian tabernetan zio, Leizen bukatu egin hituan, Euskadi Gaztera bidali genian, eta kontzertuak egiten diren lekuetara... horretan ari gaituk.

Hau da gutxi gorabehera gure Sony grabadorak elkarrizketa hartan jarri zuena, ahalik eta fidelena transkribatua.

NIDEL

UHIN, AIMAR, GARTXI ETA MOJO DIRA. KONTAKTUA: 943-861885.

◀ **JON MANTZISIDOR**



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1



ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak


ttikittaka



BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

LISTEAK...





argazki zaharra



Kauensos!!! Esan diot, bai, amari, ezetz, ez naizela orraztuko, ez dudala pailazo baten moduan jantzi, ileak gobernatu eta erretraturako guapo jartzeko inongo asmorik, baina alferrik. Buru erdian gurdi-bide baten tamainako "raya" bat egin eta eskolako beste haur guztiekin batera jarri naute ikastetxearen aurrean. Jakin nahiko nuke ze demontre egiten dudan mozolo koadrila honen artean. Ze, esango didazue, guri argazki bat atera... zergatik? Nahiko nazkatzen ditugu gurasoak egiten dizkiegun barrabaskeriekin, gero gainera argazki batean geure aurpegia edukitzeko

ere. Bibote handiko gizon bat kamararen atzean jarri eta geldid egoteko esan digu, horrela azkar bukatuko duela eta. Bernardinok ez dio mugitzeari uzten, eta ohi bezala Andereño Rafaelak masaileko eder bat eman dio. Nik, disimuluan, eta egoera aprobetxatuz kokotean kolpe bat eman diot. Bernardino nigarrez hasi da beti bezala. Ondoa duen Edurnek zapi bat utzi eta laztan pare bat egin dizkio. Aghhh! Neskak! Zertarako balio ote dute neskek. Ea behingoz argazkia ateratzen duen bibote handidun gizon horrek eta jolasean jarraitzeko aukera dugun.

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI

Koof. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
abokularitza teknikoak,
Balarazioak

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa


Basusta bidea z/g Tel. 143505

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatorz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



berria!

XSARA

ZUMAIA MOTOR



CITRÖEN
ZERBITZU
OFIZIALA

Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxa : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak